

Kontu Batzordearen erregelamendua



ehbildu

Hitzaurrea

EH Bilduren Kontu Batzordea funtsezko barne-erreminta da EH Bilduren kontrol demokratikoa, kontabilitate-zorroztasuna eta jasangarritasun ekonomiko-finantzieroa bermatzeko. Gardentasuna, integritate instituzionala eta baliabideen erabileraren efizientzia funtsezkoak dira egungo testuinguru politikoan, eta erregelamendu honen xedea Batzordeari marko juridiko propioa, operatiboa eta arau-arloan sendoa ematea da.

Federazioaren barne-kontrola indartzea eta baliabide publiko eta pribatuen kudeaketa arduratsu bat ziurtatzea ahalbidetuko duten printzipioak, eskumenak, prozedurak eta ikuskapen ekonomiko eta dokumentaleko mekanismoak garatzen ditu testu honek, betiere EH Bilduren estatutuen 16., 32. eta 52. artikuluekin koherentea izanik.

Erregelamenduaren onarpenak EH Bilduk duen konpromiso etiko eta politikoari erantzuten dio, bere oinarri militanteari kontuak emanez, bere organoen jarduera ekonomikoa modu independentean fiskalizatuz, eta bere funtzionamendua arautzen duten lege- eta estatutu-betebeharrak zorrotz beteta. Erregelamenduak, gainera, Kontu Batzordearen autonomia teknikoa eta haren gaitasun fiskalizatzailea indartzen du zuzendaritza-organoen aurrean, barne-sistema garden, trazagarri eta demokratikoa sendotuz.

I. Titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Batzordearen izaera eta eginkizuna

1. EH Bildu Federazioaren barne-fiskalizazioko organo bat da Kontu Batzordea, eta berari dagokio kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena bermatzea, baliabide ekonomiko eta ondarezkoak behar bezala erabiltzea, eta gobernu-organoei erabakitzen dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-egokitzapena egitea.

EH Bilduko estatutuetan ezarritakoari jarraikiz, Kontu Batzordeari dagokio gutxienez honako eginkizun hauek modu independentean egikaritzea: Federazioaren emaitza-kontua aztertu eta analizatzea, haren balantzea berrikustea, eta urteko aurrekontuarekiko konkordantzia edo desbideratze posibleak ebaluatzea. Era berean, kontrol-eztabaidak deitu ahalko ditu, dokumentatutako kontabilitate-kasuen jarraipena egin, eta erakundearen baliabideak egoki erabiltzen direla eta bidezko helburua dutela zaindu.

2. Gutxieneko eginkizun horiez gain, Batzordeak erregelamendu honek esleitzen dizkion beste batzuk hartu ahalko ditu bere gain, bere eskumen fiskalizatzaileen eta barne-auditoriakoen markoan.
3. Kontu Batzordeak zuzendaritza-organoei erabateko independentziarekin jarduten du, eta autonomia funtzional eta tekniko du bere eginkizunak egikaritzeko.

2. artikulua. Osaera eta hautaketa

EH Bilduko Biltzarrak hautatutako hiru (3) kidek osatuko dute Batzordea, lau urteko aldirako, gutxienez genero bakoitzeko pertsona bat bermatuz. Gainera, ordezkari bat hautatuko da.

3. artikulua. Bateriaezintasunak

EH Bilduren kargu publiko instituzional guztiak, zuzendaritza- edo ordezkaritza-politikoko karguak, baita EH Bildun erantzukizun exekutibo edo antolamenduzkoak dituzten pertsonak ere, ezin izango dira Kontu Batzordeko kide izan. Bateriaezintasun honen helburua da kontrol ekonomikoko eginkizunen betearazpenean inpartzialtasuna, independentzia eta objektibotasuna bermatzea.

4. artikulua. Jarduteko printzipioak

Batzordeak independentziaz, inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez, legezketasunez, gardentasunez, proportzionaltasunez eta ekitatez jardungo du.

II. Titulua. Eginkizunak

5. artikulua. Eginkizun orokorrak

Kontu Batzordeari dagokio:

1. Urte politiko bakoitzaren hasieran Hegoaldeko Mahai Politikoak aldeztutako Federazioaren kurtso politikoko aurrekontua jasotzea.
2. Hegoaldeko Mahai Politikoak Batzar Nagusiari onartzeko aurkeztutako dizkion aurreko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-txosten eta kontuei oniritzia ematea, EH Bilduko estatutuen 32.2 artikuluari jarraikiz.
3. Batzar Nagusiaren aurrean txostenak ematea, hark hori eskatzen badu.
4. Eskubide eta betebeharrak ekonomikoak dakartzaten egintza eta dokumentu guztietan esku hartzea, estatutuen 52. artikuluari jarraikiz.
5. Nahitaezko txostena ematea, sei hilean behin arduradun ekonomiko-finantzarioak Hegoaldeko Mahai Politikoaren aurrean egin behar duen kontu-ematearekin batera.
6. Eskatutako zaizkion nahitaezko zuzentze- zein argitze-txosten guztiak egitea.
7. Aldian behin, gutxienez lau hilean behin, bilerak egitea.
8. Federazioaren aurrekontua egiaztatu eta aztertzea.
9. Diru-sarrera publikoak (Europako, Estatuko, autonomia-erkidegoko, udalerriko eta abarrek legediaren arabera) eta pribatuak (bilkideen, jarraitzaileen, kargu publikoen, hautetsien eta konfiantzazko jendearen ekarpenak) egiaztatu eta fiskalizatzea, baita jasotako dohaintzak ere.
10. Gastu eta inbertsioak onartutako kurtso politikoaren aurrekontuari jarraikiz egikaritzen direla egiaztatzea.
11. Aurrekontu-desbideratzeak egiaztatu eta aztertzea.
12. Ikusitako aurrekontu-desbideratzei buruzko txostena ebaluatzea, eta, beharrezkoa bada, zuzenketa egokiak planteatzea, gutxienez sei hilean behin.
13. Finantza- eta kontabilitate-txostena osatzea Kontu Auzitegiari bidaltzeko indarreko lege- eta arau-betekizunak betetz, kontuei dagokien urtearen hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen.
14. Urteko memoria eta kontuak, egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua berrikustea, Kontu Auzitegiari bidali baino lehen.

6. artikulua. Jarraipen- eta ebaluazio-eginkizunak

Batzordeak jarraipen- eta ebaluazio-eginkizunak egikarituko ditu izaera nagusiki fiskalizatzaile eta independentearekin. Bereziki, honako hauek egin ahal izango ditu:

1. EH Bilduko organoen kudeaketa ekonomikoa ebaluatu, efizientziaren, legezketasunaren, jasangarritasunaren eta gardentasunaren printzipioetara egokitzen direla egiaztatuz.
2. EH Bilduko arlo eta egitura guztien aurrekontu-egikaritzapena aztertu, finantza-arrisku posibleak eta jardunbide desegokiak identifikatuz.
3. Antolakuntza hobetzeko, barne-kontrolako eta finantza-gardentasuneko gomendioak egin Hegoaldeko Mahai Politikoan edo Batzar Nagusian.
4. Neurri zuzentzaileak proposatu Federazioaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzeko, baita desoreka estruktural eta koiunturalen zuzenketa ere.
5. Azalpenak, dokumentazio osagarria eta justifikatzeko agerraldiak eskatu arduradun ekonomikoek bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa dela irizten dionean.
6. Ondorio ekonomikoak, ondarezkoak edo aurrekontuzkoak eragiten dituen edo eragin ditzakeen EH Bilduren edozein erabaki, proiektu, dokumentu, prozesu edo barne-jarduketa ikuskatu, ikertu eta horri buruzko iritzia adierazi, jatorriak, mailak edo instantziak ezarritako mugarik gabe.
7. Bere autonomia fiskalizatzailea dela-eta, garrantzitsu iritzitako barruko informazio eta dokumentazio ekonomiko guztirako sarbidea izango du Batzordeak, azterketa independenteak egiteko askatasun osoarekin.

6 bis artikulua. Arduradun ekonomiko-finantzarioak laguntzeko duen betebeharra

EH Bilduko arduradun ekonomiko finantzarioak atzerapenik gabe eta I. eranskinean ezarritako epe guztiak kontuan izanda erantzun beharko die Kontu Batzordeak egiten dituen informazioaren inguruko eskaera, eskakizun eta premia guztiei, bere eginkizun guztiak egikaritzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo dokumentala emanez.

Aurrekontuak, balantzeak, kontabilitate-egiaztagiriak, egikaritzapen-txostenak eta eduki ekonomikoak beste edozein dokumentu osorik, egiaz eta garaiz entregatzea barnean hartzen du betebeharrak, eskakizun orokor gisa zein fiskalizazio konkretu baten markoan.

Eskatutako informazioa emateko justifikaziorik gabeko ezezkoa, datuak ezkutatzea, eta behin eta berri gertatzen den atzerapena jokabide oztopatzaileztat hartuko dira, eta organo eskudunei jakinarazi ahalko zaizkie diziplina-ikuspegitik edo ikuspegi politikotik begiratuta ebaluatu ditzan.

6. ter artikulua. Irizpen eta ebazpenak bidaltzea

Kontu Batzordeak emandako irizpen, txosten, ebazpen eta memoria guztiak, eta emandako gainerrako dokumentuak, edozein eduki dutela ere, Hegoaldeko Mahai Politikoari bidali beharko zaizkio jakitun geratu dadin, eraginpeko pertsona edo organoek ere bidaltzeaz gain. Era berean, estatutuek hori ezartzen dutenean, EH Bilduko Batzar Nagusiari edota Biltzarrari ere bidaliko zaizkio, dagokionaren arabera.

Bidalketa hori izaera ofizialarekin egingo da, bitarteko elektroniko seguruen bidez, eta jaso dela dokumentu bidez frogatuta utziz. Komunikazio-betebehar horrek Batzordearen jarduera fiskalizatzaileraren ezagutza instituzionala eta trazabilitatea bermatzen du.

Era berean, bilkide guztien eskueran egongo dira dokumentu horiek EH Bilduk gaitutako barne-plataformaren bidez, erregelamendu honek ezarritakoari jarraikiz, gardentasuna, informaziorako eskubidea eta oinarri militantearen parte-hartze politikoa ziurtatuz.

III. Titulua. Barne-funtzionamendua

7. artikulua. Presidentzia eta Idazkaritza

Batzordeko kideek gehiengo sinplez aukeratuko dute Presidentzia bat eta Idazkaritza bat.

8. artikulua. Bilerak eta quoruma

Batzordea urtean hiru aldiz bilduko da gutxienez. Bilkurak gutxienez 48 orduko aurrerapenaz deituko dira. Erabakiak gehiengo sinplez hartuko dira.

9. artikulua. Konfidentzialtasuna eta aktak

Batzordearen deliberazioak konfidentzialak dira. Idazkaritzak bilera bakoitzeko aktak egingo ditu, eta EH Bilduren plataforma dokumentalean gordeko dira.

10. artikulua. Ordezkapenak eta bajak

Batzordearen osaerarako ezarritako parekotasuneko eta egokitasuneko irizpide beren arabera moldatuko dira ordezkapenak, aldi baterakoak zein behin betikoak.

Postua hutsik badago, dagokion ordezkoa sartuko da, eta Batzordeko kide berri bat aukeratzeko EH Bilduren estatutuetan xedatutakoaren arabera ekingo zaio.

IV. Titulua. Prozedurak

11. artikulua. Aurrekontu-kontrolako prozedura

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran onartutako kurtso politikoaren aurrekontua eskatuko du Kontu Batzordeak, arduradun ekonomiko-finantzarioaren bidez.

Jaso ondoren, honako prozesu hauei ekingo zaie:

1. Zuzendaritza-organoek definitutako helburu estrategikoekin eta jarduketa-ildoekin bat datorrela aztertzeari.
2. Diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena aurreko ekitaldietako emaitzekin eta eskueran dauden proiektzio ekonomikoekin kontrastatzeari.
3. Egon litezkeen ahulezia estrukturalak, gainestimazioak edo aurrekontu-esleipen inkoherenteak detektatzeari.
4. Aurrekontuaren sei hilean behingo aurrekontu-egikaritzapena egiteari eta desbideratzea balioesteari, neurri zuzentzaileak proposatuz, hala badagokio.

Trazabilitatearen, legezotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioei jarraikiz sinatutako, erregistratutako eta artxibatutako txosten baten bitartez islatuko dira dokumentu bidez jarduketa horiek.

12. artikulua. Fiskalizatzeko prozedura

Honako mekanismo hauen bidez egikarituko ditu ohiko eta ezohiko bere fiskalizazio-eginkizunak Kontu Batzordeak:

1. Fakturen, kontratuen, ordainagirien, diru-sarrera eta gastuen egiaztagirien, kreditu-txartelen ordainagirien, nominen, dirulaguntzen eta gainerako kontabilitate-dokumentuen dokumentu-berrikuspena.
2. Legezotasunaren, gardentasunaren, efizientziaren, ekitatearen eta proportzionaltasunaren printzipioak betetzen direla egiaztatzea.
3. EH Bilduko barne-arauetara, indarreko legeriara eta erakundeko organoek hartutako erabakietara egokitzen dela egiaztatzea.
4. Oharrak edo ohartarazpenak egitea praktika irregularrak, kontabilitate-zabarkeriak edo betebeharrak ekonomikoen ez-betetzeak detektatzen direnean.

Era berean, barne-auditoriak eta txosten ekonomiko espezifikoak egin ahalko ditu Batzordeak Hegoaldeko Mahai Politikoak eskatuta, betiere barne-organo, eta organo independente eta erakundearen auditorien aldetik eginez. Eskari horiek idazki bidez formalizatu beharko dira eta behar bezala justifikatuta

egon beharko dute. Batzordeak erabateko autonomia izaten jarraituko du lan horiek hedaduraren, metodologiaren eta ondorioen definizioan.

Fiskalizazio orok akta edo txosten espezifiko bat ekarriko du, eta dagokion espediente ekonomikoan sartu beharko da eta Hegoaldeko Mahai Politikoari bidali.

13. artikulua. Barne-kontrolaren urteko txostena

Finantza- eta kontabilitate-txosten bat landuko du Batzordeak ekitaldi bakoitza ixtean, eta Kontu Auzitegiari eta Batzar Nagusiari bidaliko zaio hurrengo urtearen ekainaren 30a baino lehen, EH Bilduko estatutuen 52.5 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Txostenak honako hauek jasoko ditu gutxienez:

1. Ondare-egoeraren balantze orokorra.
2. Galdu-irabazien kontu xehatua.
3. Diru-sarrerak, gastuak, aurrekontu-desbideratzeak, konparazio-azterketak eta ohar esanguratsuak barnean hartuko dituen azalpenezko memoria ekonomikoa.

Erakundearen dokumentu ofizialtzat hartuko da txosten hori, eta baliotasun ekonomiko osoa izango du barrurako zein kanporako. Irisgarria izan beharko du bilkideentzat eta EH Bilduk gardentasunarekin, kontabilitate-zorroztasunarekin eta baliabideen kontrol demokratikoarekin duen konpromisoa islatu.

13 bis artikulua. Kontuen kontrola, ordainbideak eta ahalorde ekonomikoak

1. Kontu Batzordeak aldi behin egiaztatu ahalko ditu EH Bildu titular, onuradun edo erabiltzaile gisa ageri den kontu korrante, finantza-tresna, kreditu- edo zordunketa-txartel eta ordainpeko plataforma digital guztien saldoak, mugimenduak, titulartasunak eta sarbide-gakoak. Era berean, EH Bilduren izenean baliabideak kudeatzeko pertsona fisiko edo juridikoei emandako ahalorde ekonomikoak egiaztatzen dituen dokumentazio guztian sartu ahalko da, notario-ahalordeak, banku-baimenak eta finantza-ordezkaritzako mandatuak barne.
2. Egikizun hau aldi berean eta trazabilitate osoz egikaritu ahalko du Antolakuntza Idazkaritzak eta barne-araudia betetzearen arduradunak, eta guztiek ere Kontu Batzordeari jakinarazi beharko diote edozein akats, inkoherentzia, arrisku edo detektatutako irregulartasun posible.
3. Egiaztapen horiek guztiak dokumentu bidez erregistratu behar dira, eta erregelamendu honetan definitutako konfidentzialtasunaren, integritatearen, legezotasunaren, eta trazabilitatearen printzipioen mende egongo dira.

V. Titulua. Araubide ekonomikoaren erregulazioa eta dokumentu-ikuskapena

14. artikulua. Araubide dokumental eta ekonomikoaren kontrola

1. EH Bilduko estatutuen araubide ekonomiko eta ondarezkoari buruzko V. kapitulua bete dadila zainduko du Kontu Batzordeak, arreta berezia emanez bertan jasotako dokumentuzko eta kontroleko betebeharrei.

Bereziki, estatutuen 53. artikulua betetzen dela bermatuko du, non ezartzen den Akten Liburua, Kontabilitate Liburua, Altxortegi Liburua, eta Inbentario eta Balantzeen Liburua eramateko betebeharra, Bilkideen Liburuaz gain. Liburu horiek eguneratuta, irisgarriak izateko moduan eta zorrotz eraman da eduki behar dira nahitaez, honako hauek ziurtatzeko:

- Barne-kontrola eta erakundearen fiskalizazio eraginkorra.
 - Indarreko araudia betetzea, Alderdi Politikoen Legea, Gardentasun Legea eta gainerako legezko xedapenak barne.
 - Baliabideen erabilerari buruz auditoria argiak, trazagarriak eta osoak egiteko posibilitatea.
 - EH Bilduren finantza- eta ondare-egoeraren ezagutza iraunkor eta egiaztagarria.
 - Lege-arloari, zerga-arloari, kontabilitate-arloari eta gardentasunari buruzko betetze-maila egiaztatzea.
2. Horri dagokionez, aipatutako liburu eta erregistroen edukia, antolamendua, kontserbazioa, zaintza eta haietarako sarbidea zehaztuko duen Dokumentu Erregelamendu bat egiteko betebeharra ezartzen da. EH Bilduko arduradun juridiko-ekonomiko-finantzarioak landu eta proposatu beharko du erregelamendu hori, Kontu Batzordearekin lankidetzan, eta Hegoaldeko exekutiboak onartu beharko du.
 3. Izaera loteslea izango du Dokumentu Erregelamenduak eta nahitaez bete beharreko barne-arau bat izango da EH Bilduko organo, egitura eta arduradun guztientzat.

VI. Titulua. Azken xedapenak

15. artikulua. Erregelamenduaren interpretazioa

Batzordeari dagokio erregelamendu hau interpretatzea, estatutuekin eta gainerako barne-araudiarekin koherentea izanik.

16. artikulua. Erregelamenduaren aldaketa

Honela aldatu ahalko da erregelamendu hau:

- A. Batzordearen beraren ekimenez.
- B. Hegoaldeko Mahai Politikoaren proposamenez.

Funtsezkoak ez diren aldaketak Batzordearen gehiengo sinplez onartuko dira, Kontrol eta Berme Batzordearen alde aurreko aldeko irizpenarekin. Aldaketa horiek Hegoaldeko Mahai Politikoaren eskueran jarri beharko dira, baita bilkide guztien eskueran ere, erakundearen kanal ofizialen bidez, sartutako aldaketen publizitate, trazabilitate eta gardentasun egokia bermatuz.

Funtsezko aldaketek EH Bilduko Batzar Nagusiaren berrespena beharko dute, estatutuetan ezarritakoari jarraikiz.

17. artikulua. Indarrean jartzea, indarraldia.

EH Bilduk 2025eko irailaren 20an egingo duen Batzar Nagusiak onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean erregelamendu hau.

Indarraldi mugagabea izango du, salbu eta EH Bilduko estatutuetan ezarritako prozedurari jarraikiz onartutako beste erregelamendu batek indargabetzen edo ordeztzen badu.

Xedapen gehigarri bakarra

Harremanetarako helbide ofiziala: kontubatzordea@ehbildu.eus

Dokumentu-plataforma: EH Bilduko barne-kudeaketako erreminta gisa erabiliko da (Gerentzia artxibo-sistema) jarduketan erregistrorako, artxiborako eta trazabilitaterako.

I. Eranskina. EH Bilduko Kontu Batzordeak jarduteko epeak

Prozedura edo jarduketa	Proposatutako epea	Oharrak
Urteko aurrekontua entregatzea	Ekitaldi bakoitzeko irailaren 30a baino lehen	Arduradun ekonomiko finantzarioaren kargura
Aurrekontu kontroleko txostena (1. seihiilekoa)	Martxoaren 31 baino lehen	Sei hilean behingo egikaritzapenaren ebaluazioa
Aurrekontu-kontroleko txostena (2. seihiilekoa)	Hurrengo urteko irailaren 30a baino lehen	Ekitaldiaren itxiera
Barne-kontroleko txostena Kontuen Auzitegiari bidaltzea	Hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen	Estatuko araudiaren eta estatutuen arabera
Memoria ekonomikoaren eta urteko kontuen berrikuspena	Hurrengo urteko maiatzaren 30a baino lehen	Kontu Auzitegiari bidali aurreko pausoa
Arduradun ekonomiko-finantzarioaren erantzuteko epea	10 egun baliodun gehienez	Errekerimendua jasotzen denetik zenbatzen hasita
Mahai Politikoak eskatutako auditoriak edo txostenak	30 egun baliodunen barruan eskaera izan denetik	Salbu eta Batzordeak luzapena justifikatzen badu kargagatik edo konplexutasun teknikoagatik
Irizpenak eta txostenak organoei eta bilkideei bidaltzea	7 eguneko gehieneko epea onartzen denetik	Plataforma elektroniko seguruaren bidez
Batzordearen ohiko bilkuren deialdia	5 egun balioduneko aurretiaz gutxienez	Behar bezalako prestaketa bermatzeko
Barne-aktak bidaltzea bilkura bakoitzaren ondoren	10 egun baliodun gehienez bilkura egiten denetik	Dokumentu-plataformaren bidez

Aldaketen historia

DATA	BERTSIOA	NORK SORTUA	ALDAKETAREN AZALPENA
2025/09/20	1.0	Batzar nagusiak (Konferentzia politikoa)	Oinarrizko dokumentuaren eraketa

ehbildu